

## *HELGUÀ: EL SUR DEL OTOÑO*



*Santiago Yaniz*

En el País Vasco, mitad cielo y mitad monte, acostumbrado a lo denso, al color ceniza y plomo que gravita sobre los valles y se cuelga de las montañas, sucede que algunos días de otoño e invierno el «haize beltza» (viento negro del noroeste) es empujado por el Sur —helguà— que ahuyenta el frío y las brumas y tiñe de colores el cielo

en una explosión que produce ilusión de verano, entre las fantasías del sol y los juegos de las nubes.

No hay rocio ni quietud. Todo adquiere prisa en un movimiento frenético. Huele a verano y a sed. Los colores se avivan y apagan, estallan encima, dibujando perfiles y sombras que sobrecogen tu espíritu apasionado. Nubes violetas, amarillas, rojas, negras; fantasmas en viaje, cabalgaduras etereas de las brujas del akelarre de ayer.

Y el sol... tímido como un niño al despertar, dudando si debe iluminar el encanto de la mañana.



Fotos del autor



# AIZARTE

## *Jexux Aizpurua*

AIZARTE

Aralarko ate

pago eta arte

noiznahi arrate

antzinan gerrate

haiize eta kate

eutsi goiari

noiz arte?

AIZARTE...

Mendi artean jaioak ezin hitz egin beste ezertaz, mendiaz ez bada. Leihoeztik ez dut besterik ikusten. Ibai ertzean jaio nintzen baina beti izan dut ibai horren jatorriaz, hai zearen sorreraz, gailurren pakeaz, basoen isiltasunaz jakinminha. Bide guztiek mendira

naramate. Alferrik da, ezin ihesi joan, hala ere badakit mendien urrutietan itsasoa zai dudala.

Ez zait sekula ere bururatu hainbeste aldziz zapaldu eta zapaltsen ditudan bide eta zehar hauetaz idatzi beharko nuenik; hara hemen

nere aukera eta mendiari zor diodan goratzearrean.

Ataundarrek ez bada, oso gutxik ezagutzen du leku hau, bai ordea artzaiek, baserriarek, bai garai batetako jentilek ere.

Gailurtzaileen aurka, gora mendizaleak!



*Belarrik gabeko  
«Astoa».*

**Kokaketa:** Ataungo Elabarrena auzoa abiapuntu bezala, Iztotorren harrobirako bidea hartu behar da, eta han ditugu gure aurrean Aizarteko Mailoak. Hala ere, beste bi sarrera baditu auzo honek, bata Gurutzeberri deritzaion\_puntutik eta bestea Kobadi zeharretik Aralegiko zelaia.

Lehen ibilaldia egiteko auzo guztia zeharkatzea pentsatu dut eta horrekin aitzakia bezala berto bat hartu.

Udazkena da. Hostoak aspertu dira adarreran eta horbel bihurtzen ari dira. Basoak bilutsik baina ederraren ederrez. Ezkurra ere erori da gaztainarekin batera. Larreak urritu eta ardiak ez dute goian egon nahi. Artaldeak beren dilin-dalan hotsekin herrietara datozen igarotzeko larre bila. Bainan denak ez dira jetxi, han gelditu dira izadiaren zaintzai-letzan pagoak, haritzak, lizarrok, gorostia, elorriak, arteak, gaganak, mailoak, txabolak eta iturriak, baita ere bela beltz, zapelari, arrano eta putreak.

Mendira joateko berdin da edozein urtegarai. Bakoitza bere edertasuna, grazia eta doinua du. Nahi duzunean joan zaitezke. Mendarako ez dago eguraldi txarrik. Beti du erakarpena, aide garbia, ur gardena, laino hertsia, elurra, izotza, zizak, jentilarriak, gailurrak, kobazuloak, abereak, artzaia, zuhaitzak...